

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

13-4-02 6.ALEA



Perot,
etengabeko
borroka enpleguaren alde

6. ORR. ►►

Korrika
Zizurkilen

2. ORR. ►►

Udalaren
diru-kontuak

3. ORR. ►►

Atez Ateko
bilketaz
hizketan

10. ORR. ►►

Martxoaren 14an igaro zen euskararen aldeko lasterketa Zizurkildik. Eguraldi bustiari aurre egin eta jendetza bildu zen herriko kaleetan. Hona irudi batzuk.

Zizurkil Korrika!



Adunako aldapa jaitsi bezain agudo hartu zuen Zizurkilgo Ezker Abertzaleak lekukoa.



Urkamendi guraso elkarteak urteroko ohiturari jarraituz Zizurkil Goiko bidegurutzean hartu zuen lekukoa.



Ikastolaren izenean guraso elkarteak lehendakariak eta bertako ikasle batek egin zuten pankartaren aurrean korrika.



Ziotza Kirol Elkartek bertan diarduten zenbait gazteri eman zien protagonista izateko aukera.



Pello Mari Otaño herri eskolak Bulandegi kalea zeharkatu zuen lasterka



Zizurkilgo Udalak erabaki zuen erosita zuen lekukoa eramateko oho-rea euskaraz alfabetatzeko ikastaroan diharduten herritarrei uztea.

ERREPORTAIA

“Aurrerapausuak egin arren, Zizurkilgo Udala oraindik ez da jasangarria”

Azken hamarkadetako garai ekonomiko zailenean egokitu zaio Udalaren arlo honen ardura Nerea Lizarraga ogasun zinegotziari. 2013ko aurrekontuak onartu berritan izan gara berarekin, aurrekontuen eta bereziki udal ekonomiaren errepasoa egiteko.

Aurrekontuak azaltzen hasi aurretik, gaur egungo Udalaren argazkia egin digu, atzera joz. “Bi urteotan, ahalegin handia egin da kontuak orekatzeko eta aurrerapausu handiak eman dira. Ez gaude 2011ko egoeran. Dena gainbegiratu

dugu, ohiko gastutzat hartzen zirenak bereziki. Horrela herritarren zerbitzuari ahalik eta gutxien eraginda, aurrezpen garrantzitsuak lortu dira, zinegotzien lan militantea berreskuratuta esaterako. 3 neurri nagusiekin bakarrik 160 mila

euro aurreztu dira (*Ikus taula*).

Hala ere, argi dio Lizarragak, “gaur egun oraindik Zizurkilgo Udala ez da jasangarria”. Azken urteetan pilatutako zorraren zama izugarriaz gain, ohiko gastu handia duen Udala da Zizurkilgoa. “Herria bera bitan banatuta egoteak ez du laguntzen. Adibide erraz bat jartzeko, 3 mila biztanleko zenbat herri egongo dira 2 udal eraikin, 2 kultur etxe eta 3 ikastetxe dituztenak?”.

Atzeratutako fakturak

2013ko aurrekontuei begira jarri zirenean argi zuten egoera ez zela erraza izango. “Kontuan hartu behar da krisia gero eta sakinagoa dela, eta era berean, iazkoetan Joxe Arregi plaza-

ko etxebizitzaren diru sarrerak izan genituela, aurtan ez daukenak. Joxe Arregiko etxebizitzaren diru sarrerak gainera, espero baino handiagoak izatea lortu genuen, eta argi esan behar da: Horrek lagundu zuen Udala bide estutik



Aunque hemos dado pasos, el ayuntamiento todavía no es sostenible

Nerea Lizarraga, la responsable de hacienda del Ayuntamiento, nos ha detallado los presupuestos de 2013. Antes, sin embargo, ha analizado la situación económica actual. “En estos dos años se ha hecho un gran esfuerzo para equilibrar las cuentas. Hoy estamos mejor

que en 2011. Hemos revisado todos los gastos y simplemente teniendo en cuenta 3 aspectos principales, se han logrado unos ahorros considerables”. (Ver tabla). Aun así, Lizarraga afirma que el Ayuntamiento, a día de hoy, no es económicamente sostenible: “Además de la enorme

carga del endeudamiento acumulado en los años anteriores, el gasto fijo del Ayuntamiento es muy elevado, por las características del propio municipio”.

Facturas anteriores

No ha sido fácil ajustar el presupuesto de este año. Y es que

“la crisis cada vez aprieta más”, y este año el Ayuntamiento no cuenta con el remanente que obtuvo el año pasado gracias a la venta del solar de la plaza Joxe Arregi. “Obtuvimos mayores beneficios de lo que esperábamos y gracias a esa gestión y a los ahorros en diferentes

«Zinegotzien lan militantea berreskuratu da»

ateratzen. Sarrera horiekin eta aurrezpen neurriekin ordaindu ditugu aurreko urteetako faktura ugari eta hasi gara zor izugarriari buelta ematen. Guk ordaindu ditugu ez soilik aurreko urteetan pilatutako maileguak, baita faktura ugari ere”.

Egoera orekatzen joan ahala, inbertsioak egiteko aukera zabalagoa izan litekeela pentsatzekoa da. Baina gaur egun ez da horrela. “Lehen nahiko estu ez eta kanpoko legeek itotzen gaituzte. Rajoyren gobernuak martxan jarritako estabilitate legeak estutu egin ditu baldintzak Udalentzat. Helburua argia da: Banketxeei dirua bueltatzea. Orduan, Udalei ez zai baimentzen egiterik banketxeei zor zaien dirua itzuli baino

Kontzeptua	2010ean	2012an	Diferentzia
Zinegotzien eta talde politikoen ordainsariak	91.257€	36.840€	-54.417€
Azpiktratatutako zerbitzuak: Aholkularitza, lorezaintza...	193.000 €	103.100 €	-79.900€
Bestelako gastuak: Loatzo, aseguruak...	84.000€	58.000€	-26.000€
Aurrezpena		160.317€	

lehen. Horrela, esaterako, dirua sobratzen bazaizu aurtengo aurrekontuetan, legeak ez dizu baimentzen diru hori inbertsioak egiteko erabiltzera, behartzen zaitu zorra amortizatzeke erabiltzera, nahiz eta zuk urte horretako maileguen kuotak ordainduta izan”. Hori ez da ordea, muga bakarra izan. “Horrez gain, zorpetze maila bat dute erakundeek, orain zorrotz begiratzen dena. Alegia, aurrekontua 3 milioikoa bada, horren ehuneko bat egon zaitezke zorpetuta. Zizurkilek zorpetze maila hori erabat gaingiduta dauka,

eta horrek eragozten digu mailegu berriak eskatzea, txikiak izanagatik ere. Lege hori lehen ere bazen baina ez zen jarraipen zehatza egiten”. Inbertsioak egiteko aukera beraz, mugatua da oso egun. “Guri ematen digu min handiena hainbat proiektu atzeratu beharrak. Baina traba guztiekin ere, ari gara pixkanaka”.

Zorren jaitsiera

Aurrezpen eta orekatze ahalegin hori argi ikusten da zorren kitapenean. “2013ko martxoan, bankuekin ditugun maileguetan ordain-

«Zorra kentze- ra behartuak gaude legez, eta horrek mugatzen gaitu»

tzeko geratzen zaigun zifra 2.388.741, 80€ da. Alegia, urte terdian 500. 000 € pasa kendu dugu zorretan, interesak kontatu gabe. Erritmo honi eusteko moduan bagara, 2 milioi euro azpiko zorra utziko dugu legealdi amaieran. Zor handia, baino askoz bideragarriagoa guk iritsi ginen aurkitutakoa baino”.

3 aurrezpen nagusi

2013ko aurrekontuak: Herriarrei zuzendutako laguntzei eustea xede

2013an ordainduko diren zorrak

Kontzeptua	Ordaindutakoa
Bankuen Interesak	61.600 €
Bankuen zorren Amortizazioak	295.900 €
2009ko foru funtsaren itzulketaren azken zatia	128.360€
2012ko foru funtsaren itzulketa	80.000 €
2013an itzuli beharreko zorra	565.880 €

Inbertsioak 2013an

Egingo diren inbertsioen kasuan, argi dago zergaitia. “Dirulaguntza handia dutenak dira eta atzeraezinak. Inbertsio nagusi bat dago: ur zikinen saneamenduaren 2. fasea. 445.00 euroko inbertsioa da baina 364.00 euroko dirulaguntza du. Lehen fasea egingo eta ezinbestekoa zen bigarrena egitea. Hori da kasik inbertsio bakarra. Horretaz gain diru kopurutan txikiak diren bi inbertsio aurrakusi dira, baserri bide baten konponketa,

dirulaguntzarekin hau ere, eta hondakinen kudeaketa berri-rako inbertsioa. Kasu honetan ere aldundiak diru laguntzak eskaintzen ditu”.

2013: Joxe Arregi plaza berrituko den urtea

2013ko aurrekontuetan ez da agertzen aurreko urtekoetan agertzen zelako, baina aurreko ikusiko ditugu Joxe Arregi plazan aldaketa nagusienak. “Herriarrek elkarlanean hobetu genuen plazaren proiektua eta hori gauzatuko da datozen hilabeteetan. Herriarrek egindako proiektutik, aterpea geratuko da momentuz eraiki gabe, 2014. urterako aurrekusi da printzipioz. Orduan jarriko da mahai gainean aparteko gastu bat eskatzen duelako, eta denboran ere honela egoituko delako 2013ko urte bukaera aldera amaituko baitira urbanizazio obrak. Baina dena prest utziko da bihar edo etzi egin dadin, proiektuari sartutako hobekuntza baita”. Horrez gain Teodosio etxea ere aurreko botako da.

2013ko aurrekontuaren kopuru orokorra 3.289.268€koa da, lazkoa baino % 12 txikiagoa. Aurtengo aurrekontuetan lehenetasunak jartzerakoan, batzorrera eta batzordetara hurbildutakoak argi izan dute, herriarrei zuzendutako laguntzei eutsi behar zaiela. “Zerbitzu sozialetan igo den bakarrenetako bat, herriari begirako dirulaguntzak eustea garrantzitsu ikusi zen. laz jaitsi zitzaizen gehienei, aurrekontuak orekatze bidean egindako ahaleginaren baitan, eta argi genuen aurreko hortik ezin genuela jaitsi. Herriarrek elkarteetan, festa batzordeetan eta bestelako mugimenduetan lehentasun izan dugu”. Lehen aldiz, batzorde bakoitzak bere aurrekontuak egin ditu, zinegotzien eta herriar- rren artean. “Batzorde bakoitzak banaka-banaka bildu eta ahalegina egin dute aurrekontuak aztertu eta ahal den tokietan aurrezteko. Lehen ere oso

estututa zeuden, baina ahalegin hori azpimarratzekoa da. Batzorde berriak sortu eta diru gutxiagorekin gauza gehiago egiten ari dira. Aurreko modu parte hartzaileagoan egin nahi izan ditugu, nahiz eta jabetu parte hartze osoa zaila dela. Batzordeek eurek aurrekontuak lantzea aurrerapausua da, azkenean jendeari aukera eman zaio bere iritzia eman eta ekarpenak egiteko. Datozen urteetara begira ere hori izango da gure apustua”.

Aurtengo zorra

Zorra ordaintzen erabiliko den kopurua aurrekontu osoaren % 18a da ia. “Latza da. 2009tik Aldundiarekin atzeratutako zorrak aurreko amaituko dugu itzultzen. Orduko arduradunek atzeratzea erabaki zuten eta egoera txarragoan itzuli behar izan dugu. Orain berriz, urtero itzultzeko eskatzen digute, nere ustez zuzenagoa da jarrera hori, baina noski, estutu egiten gaitu”

pagar la deuda que tiene el consistorio con la Diputación desde el 2009. Los responsables de entonces decidieron retrasar el pago y lo hemos tenido que pagar en una situación mucho peor que la de entonces”.

Todas las inversiones que se harán este año tienen una sub-

vención, y por eso no se pueden retrasar. “La más importante es la segunda fase de mejora de la red de saneamiento. Supone una inversión de 445.000 euros, pero hay una subvención de 364.000 euros”. También se realizarán dos inversiones menores, de 54.000€ y 50.000€, el

arreglo de un camino rural y la implantación del nuevo sistema de recogida de residuos. Hay que remarcar que el 2013 será el año de la urbanización de la plaza Joxe Arregi en consonancia con el proyecto que aprobamos en las reuniones con los vecinos y las vecinas.

Objetivo de los presupuestos: mantener las ayudas dirigidas a los vecinos

El presupuesto para este año se ha reducido a 3.289.268 euros, un 12% menos que el año pasado. “El objetivo ha sido que las reducciones no afectasen a los vecinos y las vecinas. Esa ha sido la voluntad de los y las zizurkildarras que se acercaron a las diferentes comisiones. El fin es apoyar el trabajo que ha-

cen los vecinos y vecinas en las asociaciones, en la comisión de fiestas y o en diferentes grupos de trabajo”, remarca Lizarraga.

La deuda

El dinero que se destinará al pago de la deuda alcanza el %18 del presupuesto general. “Este año terminaremos de

partidas pudimos salir del trance”. Y es que, tal y como afirma Nerea, “aparte de la hipoteca se han tenido que pagar facturas anteriores”.

Se podría pensar que, a medida que las cuentas se vayan saneando, aumentará la capacidad de inversión. Pero lo cierto es que para ello también hay trabas: “La ley de estabilidad de Rajoy nos obliga a devolver el dinero al banco eliminando

la posibilidad de invertirlo. De modo que, si nos sobra algo de dinero, estamos obligados a destinarlo para la amortización de la hipoteca”. Además, el Ayuntamiento de Zizurkil supera el nivel del endeudamiento permitido. “Antes también existía esta barrera, pero está claro que no se le hacía un seguimiento tan exhaustivo como el que se le hace ahora”, concluye Lizarraga.

ERREPORTAIA



“Hemen kaleratzea merkeagoa delako erabaki dute Perot ixtea”

Urtarrilaren amaieran greba orokorrean hasi zirenetik bi hilabete joan dira. ERE bat lehenik, beste bat gero, mobilizazio eta protesta ugari, eta oraindik indarrez daude aurrera jarraitzeko. Leloa hasierako berbera: “Perot ez itxi”.

Lantegi zutenaren atariko hesitik kanpora utzi dituzte. Euri, elur eta hotzak egokitu zaizkie bertan. Baina astea joan eta astea etorri, han jarraitzen dute. Ez dute ahaztuko 2013ko urtarrilaren 18a, amesgaiztoa

hasi zen eguna. “Ostirala zen. Langileen ordezkariok bulego-ra deitu gintuzten eta hurrengo astelehenean, urtarrilaren 21ean batzar batera azaltzeko esan ziguten. Egun horretan bertan, egina zegoen mate-

rial ateratzen hasi ziren biltegietatik”. Eta astelehen hartan etorri zen kolpea, “desagertze ERE-a aurkeztu zuen enpresak, 81 langiletik 75en kaleratzea aurrikusten zuena, gainontzeko 6ak Donostiako bulego batean lan komertzialetarako utziz”. Eneko Puyadenak eta Asier Morenok eman dizkigute azalpenak, langileen ELAko ordezkariak.

Negoiaziorik ez

Greba mugagabeari ekin zioten urtarrila amaieran, ERE-a indarrean sartzearekin batera. “Hilabeteko epea izaten da negoziatzeko, eta 5 bilera egin genituen enpresarekin. Bilertan, ordea ez zen negoziazorik

egon, gu enpresaren bideragarritasunaz hitz egiteko eseri ginen, eta prest geunden helburu horrekin orduak edo soldatak negoziatzeko, baina eurek ez zuten horretaz ezer jakin nahi, ixtea zuten buruan”. Perot-eko kasuaren berezitasuna da erabateko ezustea izan dela itxierarena. “2012a ere irabaziekina amaitu zen. Gabonetan aginaldoa eta guzti jaso genuen. Eurek argudiatzen duten arrazoi ekonomikoa gezurra da, krisi urte guztietan Zizurkilgo enpresak irabaziak eman dituelako. Taldeko lantegietatik produkzio ratio altuena guk dugu, eta Brasilgoa kenduta, kostu txikienekin gainera. Eta hori gutxi balitz, orain jakin dugu 2010etik hona 5 mi-

lioio euro atera dituztela Zizurkilgo lantegitik. Banku bat izan gara multinazionalen beste enpresentzat. Beraz, ez zen enpresa gaizki joango, ezta?” galdetu dute. Kontuan hartu behar da Zizurkilgo lantegia mutinazional alemaniar-estatubatuar baten parte dela gaur egun. Eta hain justu, arazoa Zizurkilgo kanpora ikusten dute. “Hau itxi nahi dute multinazionalen beste lantegiak bideragarriak egiteko. Eta Perot ixteko arrazoi bakarra da erreforma laboralar eskertu, estatuan kaleratzea merkeagoa dela. Argi eta garbi”.

ERE-tik ERE-ra

Negoiaziorik gabe hilabetea igaro ondoren, martxoaren

6an, jada kaleratze agiriaren zain zeudela, enpresak erretiratu egin zuen ERE-a. “Eurek ERE-a atzera azken momentuan botatzearren arrazoiak ez da euren helburuak aldatu direla edo langileei eskaintza hobea egin nahi diela, epaiketa galtzeko beldurra baizik. Ikusi zuten ia ziur epaiketan bukatuko zela auzia eta bazekiten galtzeko aukerak zituztela: Ixteko erabakiaren baliogabetzea lortuko genukeelako edo gutxienez kaleratze bidegabekoa onartzea langile guztiontzat. Eta lantegiak isuna ere jaso zezakeen. Horren beldurrez egin dute atzera. Taktika hutsa izan da. Orain beste ERE-a

Udalaren babes eta laguntza

Zizurkilgo Udalak lehen egunetik izan du Perot-en gertatzen zenaren berri. “Langileak etorri ziren gertatzen zenaren berri ematera, eta hasieratik, ahal genuenean laguntza eta babes eskaini diegu. Albisteak jakin eta gutxira bando bat kaleratu genuen egoera salatuz eta Udalbatzan ere mozio bat onartu genuen, langileek eurek aurkeztua. Nire ustez, erreforma laboralak benetan zer ondorio izan dituen erakusten du Perot-en kasuak”, adierazi digu Joxemari Luengo alkateak. Luengok goraipatu egin du langileen mobilizatzeko gaitasuna. “Bide berean, zizurkildarrei orain arte bezala mobilizazioetan parte hartzeko eskaera egiten diegu, gaur Perot delako, baina bihar edozein izan liteke”.

Lantegia itxiko balitz eraikina hor gelditzeak ekar lezakeen arazoez galdetuta, “orain ez da horretaz hitz egiteko garaia, langileen ondoan egoteko baizik. Eurak babestu behar ditugu, eta zalantzarik gabe, enpresak irekita jarraitzea litzateke guztiontzat irtenbide onena”.

ERREPORTAIA



8

ezartzeko". 2. ERE-a aurkeztu dute. Martxoaren 25ean sartu zen indarrean ERE hori. Aldaketa da bigarren honetan lan egindako urteko 5 egun igo dutela kalteordaina, 25 egunera. Gainontzean ez du aldaketarik aurrekotik, desgertze ERE bat da aurrekoaren arrazoiketa berberarekin.

Orain beste hilabeteko epea hasiko da negoziaketarako. Langileek argi dute grebari eutsiko diotela eta ez dutela onartuko bigarren eskaintza hori ere. "Honek erakusten digu denbora irabazteko maniobra izan dela".

Erabakia argi dute Zizurkilgo langileek. "Greban jarrai-

tuko dugu. Borrokan jarraituko dugu. ERE berria mahai gainean izanda ere, argudio berberak ditugu guk, badakigu enpresa bideragarria dela, eta ez dugu atzera egingo. Hau erabateko bidegabeke-ria da eta indarrez gaude borrokarako". Mobilizazio asko eta jendetsuak egin dituzte

azken asteetan. "Asko mugitu gara. Baina ez dago beste biderik. Zerbait lortu nola, etxean geldituta? Ez da erraza etengabeko mobilizazioa baina hori da bidea. Beste kasu batzuetan, enpresa asko ixten ari dira baina langileek eurek ikusten dute ez doala ondo, merkatua aldatu delako edo... Gure kasuan ez dago horrelakorik, onartezina da"

Esker hitzak ere izan dituzte. "Eskerrak eman nahi dizkiegu, eskualdeko udaletxei, erakunde bezala erakutsi diguten babesagatik. Eskerrak nola ez, mobilizazioetan parte hartu dutenei eta gure gertukoei, ematen diguten babesagatik. Aldi berean, esan, mobilizatzen jarraitu beharko dugula eta herritarren laguntzak beharrezko izaten jarraitzen duela".

ALBISTEA

Krisiaz gogoeta egiteko aukera apirilean

Zizurkilgo Udaleko kultura sailak antolatuta, krisiaren inguruko bi hitzaldi izango ditugu Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean.

Krisia egunerokoan dugu aipagai. Eta egunero datoz berari lotutako albisteak. Hortik haratago ordea, gogoeta egiteko gunea sortzeko ahalegina egin du Udaleko kultura sailak. Arantxa Zabala liburutegiko ardura duna izan da sustatzailea. "Guztia kasualitate batetik hasi zen. Joserra Bustillo kazetariak sare sozialetan zintzilikatu zuen artikulua bat irakurri nuen, hemengo enpresei buruz. Testu interesgarria iruditu zitzaidan, eta artikulua amaierara iritsi

nintzean, hara! Ikusi nuen Mari Jose Aranguren egina zela, nik Zizurkil bizi delako ezagutzen nuen emakume batek. Orkestra lehiakortasun institutuko zuzendaria da gaur egun eta Deustuko unibertsitatean ekonomia doktorea. Horrelako aditu bat herrian izanda, pentsatu nuen ezin genuela aukera galdu. Bere planteamentua gainera, egoera azaltzeaz gain, irtenbideak eskaintzea da. Eta hortik hasi ginen antolatzen".

Hitzaldi bat bakarrik an-

tolatu beharrean, testuinguru-jartzea egoki ikusi zuen Zabalak. "Joseba Tobar Arbulu EHUKo irakaslearen artikulua irakurriak nituen lehen ere. Ezkerreko teoria bat defendatzen du krisiaren sorreraz, garapenaz eta irteeraz. Horrela berak kontestu bat emango digu lehen hitzaldian eta gero konkretuagoa, eskualdera begirakoa izango da Aranguren eskainiko duena".

«Planteamentua, egoera azaltzeaz gain, irtenbideak eskaintzea da.»

Apirilaren 17 eta 24

Apirileko bi astezkenetan jarri dituzte hitzaldiak, iluntzeko 19:00etan, Atxulondo Kultur Etxean. Lehenean Joseba Tobar Arbulu izango da

hizlari. *Krisiaren zergatiak eta irtenbideak* izeneko hitzaldia eskainiko du. Hurrengo astea, hilaren 24an, Tolosaldera begira jarriko gara Mari Jose Arangurenekin. *Krisia Tolosaldean, eta ihes egiteko moduak* izango da hitzaldiaren izenburua. "Tolosaldea Garatzeneko kide bat ere gonbidatu nahi dugu hitzaldian parte hartzera, eta herriko enpresa txiki eta ertainei ere egingo diegu hurbiltzeko deia, Arangurenen proposamenak baliagarriak eta interesgarriak izango zaizkie eta". Hortik haratago herritar guztiei egin die hurbiltzeko deia Zabalak. "Entzuten ditugu krisiari lotutako albisteak irratian edo telebistan baina sarri erdi egiak edo erdi gezurrak izaten diren inpresioa dut, horrelako adituak aurrean izanda informazio zehatza jasoko dugu, zalantzak argitzeko aukerarekin", azpimarratu du. Bide berean, eskerrak eman nahi izan dizkie Tobar-Arbulu eta Arangureni. "Dirurik ez genuen hau antolatzeko, baina ez dute inongo eragozpenik jarri. Eskertzekoa da". Krisiaz gogoeta beraz, apirilean, Zizurkil.

Opción de reflexionar sobre la crisis en abril

Con el objetivo de aportar luz sobre la actual crisis y debatir las distintas fórmulas para salir de ella, el Departamento de Cultura del Ayuntamiento ha organizado dos charlas en abril. La primera de ellas, se desarrollará el día 17 de abril y correrá a cargo del profesor de la UPV Jo-

seba Tobar-Arbulu. En ella abordará principalmente las causas de la crisis. Una semana después, el día 24, será la vecina de Zizurkil Mari Jose Aranguren la encargada de explicar la situación específica de Tolosaldea y las diferentes estrategias para salir de la crisis. Aranguren,

doctora en Economía, es directora del Instituto Vasco de Competitividad Orkestra. A la conferencia también quieren invitar a una representante de Tolosaldea Garatzen y a empresas de la comarca. Ambas citas se desarrollarán en la casa de cultura Atxulondo a las 19.00.

"Quieren cerrar Perot porque aquí el despido es más barato"

Los trabajadores y las trabajadoras de la antigua Perot, hoy Xerium Huyck Wangner, no olvidan el día 18 de enero. Aquel día empezó la pesadilla que dura ya dos meses. "Nos convocaron para una reunión, donde nos informaron sobre el ERE de extinción para 75 de los 81 trabajadores", explican Eneko Puyadena y Asier Moreno, delegados sindicales de Perot. En el periodo del ERE, realizaron cinco reuniones con la empresa. "Pero no hubo negociación. Nosotros estábamos dispuestos a hablar sobre la viabilidad de la planta de Zizurkil, pero ellos ya habían

decidido el cierre". La peculiaridad del caso de Perot es que los trabajadores y las trabajadoras no se esperaban esta decisión. "Acabamos el año 2012 con beneficios y aguinaldo. La empresa ha dado beneficios todos los años que está durando la crisis y en ratios de producción somos los primeros de la multinacional". La empresa Zizurkil hoy en día es propiedad de una multinacional germano-americana. "Y ahora hemos sabido que desde el año 2010 se transfirieron 5 millones de euros desde Zizurkil a otras plantas. Hemos sido el banco para las otras plantas".

Reforma laboral

El porqué de la decisión de cierre lo tienen claro. "Quieren cerrar esta planta para hacer viables las otras plantas de la multinacional. Y el único motivo para cerrar la planta de Zizurkil es que con la reforma laboral, el despido más barato lo tenemos aquí. Así de claro".

Sin embargo, el 6 de marzo, después de un mes de negociaciones infructuosas, y cuando esperaban cartas de despido, la empresa retiró el ERE de extinción. "Retiró aquel ERE en el último momento por la sencilla razón de que temía perder el juicio posterior, por-

que sabía que íbamos a acudir a la justicia. Se dieron cuenta de que podían verse obligados a pagar un multa o que su decisión podía quedar invalidada". Ahora la multinacional ha presentado otro ERE, con las mismas condiciones. "Quieren ganar tiempo y enredarnos. Pero seguiremos en huelga y luchando, no nos queda otra". Han querido agradecer el apoyo de los ayuntamientos de la zona y de todas las personas que se han movilizado con ellos y ellas, y han advertido que seguirán movilizándose. El objetivo está claro: "Perot ez itxi!".

9

ELKARRIZKETA

“Eztabaida lasaia izan dugu herritarrekin, baikorra da bileren emaitza”

Hondakinen bilketa berrirako pausuak ematen jarraitzen du Zizurkilgo Udalak. Herritarrekin egindako batzarrak amaitu berri-tan hitz egin dugu Joxe Mari Luengo alkatearekin eta Aitor Sarasua ingurumen zinegotziarekin.

Zer balorazioa egiten duzue herritarrekin egindako bilerez?

Joxe Mari Luengo: Auzoz auzo deitu ditugu bilerak, eta jendearen parte hartzea txukuna izan da, guztira 300 familietako ordezkariak hurbildu dira Atxulondora. Askotan he-dabideetatik zabaldu nahi den zalapartaren alboan, argi esan nahi dugu bilerak errespetu

giroan egin direla. Aldeko eta aurkako iritziak entzun ditugu eta argudioak mahai gainean jarri ditugu. Nik behintzat, on-dorio argi bat atera dut: Ezta-baida hor dagoela, baina jen-dea kontzientziatzen ari dela, aldaketa egin beharra dagoela ikusten dute. Batzuk bosga-rren edukiontzia-aren aldekoak dira, baina edukiontzi honek

daukan birziklatze tasa ikusita, %35 inguru, eta gure planteamendua entzunda, askok ulertu egiten dute erabakia.

Hemendik aurrera zer pausu eman behar dira?

Aitor Sarasua: Udalak aurretiaz landutako proposamena luzatu die bilera hauetan herritarrei. Auzo bakoitzeko bilketa moduak, ordutegiak eta abar. Eta ondoren beraiei eman zaie alternatibak aurkezteko epea. Behin fase hau pasata, proposamenak begiratu eta aldaketak txertatuko ditugu.

Herritar hainbaten artean aurkakotasuna sortu da, Zizurkil Txukun plataformak sinadura bilketa ere egin du. Ze balorazio egiten duzue, ze jarrera somatu duzue?

J.M.L.: Gaia politizatu egin

da. Kanpainatik argi utzi genuen gure eredua zero zabor dela. Ahalik eta gehien birziklatu nahi dugu, berrerabili, eta hondakinak murriztu. PNVk sustatutako plataforma horrek bosgarren edukiontziaren gaia dauka. Badaki-gu honek ze birziklatze tasa duen. Beti esaten dugu udal-etik, atez atekoa adina birziklatzen den beste sistema bat baldin badago hitz egin-go dugula, baina eurek ere onartzen dute momentuz ez dagoela. Izan ere, hondakinen gaian ere, beste gauza askotan bezala, guztiok esaten dugu ondo egiten dugula baina bosgarren edukiontziaren emaitzek esaten dute ez dela horrela.

A.S.: Sinaduren auzian, guk errespetatu, eta areago, ulertzen dugu herritarren kezka, eta saiatzen ari gara azalpen

eta argudioak ematen. Ez duguna onartzen da plataformaren aitzakian PNVk hau arma politiko bezala erabiltzea. Esaterako, firmen berri egunkari batetik bakarrik jakin dugu, eskatu dizkiegu eta ez dizkigute eman nahi. Aurrez, herritarrek egin zuten firma bilketa bat eta 600 sinadura aurkeztu zituzten. Eurrekin Udara aurretik elkartu ginen, ikuspuntu ezberdinak genituen, baina hitz eman genien plantemamendu bat aurkeztuko geniola bilere-tan eta eurek iritzia emateko modua izango zutela, eta hori egin dugu.

J.M.L.: Bi urte hauetan ez diegu PNVkoei beste gaietan proposamen bat bera ere entzun. Aurrekontuetan ere 3 milioi euro egonik, atez atekoaren partida soilik interesatzen zitzaien.

Inposizioa dela entzun-go zenuten bilere-tan...

J.M.L.: Eta guk ere onartu behar ditugu gure akatsak. Nik ez dut esango dena ondo egin dugu-nik. Onartzen dut, nik eta Zizurkilgo Udal gobernuak behintzat bai, egiteko moldeetan hobe zitekeela. Kontua izan zen herritik 6 kilome-trora erraustegi bat egin nahi zigutela eta horri aurre egi-teko plan integral bat aurkeztu behar zela. Hor erabakia azkar hartu behar izan zen, birzikla-tze tasak urte gu-txian igo behar dira erraustegia ekiditeko



“El resultado de las reuniones ha sido positiva”

El alcalde, Joxe Mari Luengo y el concejal de medio ambiente, Aitor Sarasua, analizan en esta entrevista el proceso de socialización del nuevo sistema de recogida de residuos, y nos hablan sobre los aspectos del sistema de recogida puerta a puerta en Zizurkil.

El proceso con el que los zizurkildarras y las zizurkildarras concretarán las características del sistema está aún en marcha, sin embargo, los responsables del Ayuntamiento valoran positivamente las respuestas que han obtenido en las reuniones celebradas.

“Han participado más de 300 familias. Las reuniones se han celebrado en un ambiente de respeto, se ha debatido y hemos recabado distintas opiniones. Lo que creemos es que la gente está cada vez más concienciada de que hay que reciclar, y sabemos que

este es el sistema más eficaz, hoy en día”.

Asumen que el recorrido realizado para la implantación de la recogida puerta a puerta quizás no ha sido el más idóneo. “Proyectan edificar una planta incineradora a seis kilómetros

de nuestro municipio y lo único que podemos hacer para evitarlo es aumentar nuestras tasas de reciclaje, para ello, es fundamental poner en marcha este sistema”.

Las tasas

Criticán que el PNV ha querido crear polémica

en torno a este tema, incidiendo, por ejemplo, que en Zizurkil Goia, no se implantará el sistema puerta a puerta o que las tasas de basura subirán. En torno al primer punto, afirman que, al igual que en otros núcleos diseminados, se ha optado por el autocompostaje o compostaje vecinal para

la fracción orgánica, entendiéndose que es el modelo más eficaz.

En torno a las tasas, explican que si bien en el sistema que proponen la recogida es más cara, no lo es el tratamiento posterior y que, por lo tanto, no prevén una subida superior al IPC. “El Ayuntamiento recibirá dine-

ro por todo lo que recicle”, subrayan.

Los responsables municipales quieren transmitir un mensaje de tranquilidad a los vecinos y vecinas. “Somos conscientes de que los cambios pueden crear intranquilidad, pero estamos convencidos de que los asumiremos rápidamente”, afirman.

ELKARRIZKETA

Autokonposta eta auzokonposta bultzatuz

Hondakinak kudeatzeko sistema berriaren baitan, hondakin organikoak ahal dela herrian tratatzeko, auzokonposta eta autokonposta sustatzen ari da Udala. "Epergain kaleko auzokideentzat, auzokonposta gune bat jarri genuen martxan duela hilabete batzuk. Gorabehera batzuk izan dira, hasieretan ohikoa den legez, baina jendea ohitu da eta esperientzia baikorra izaten ari da". Zizurkil goian beste auzokonposta gune bat jarriko da datozen asteetan, herriguneko hondakin organikoa bertan tratatzeko. Horrez gain, etxean bertan konposta egitea sustatzen ari dira. "Etxean berdegunea duten goiko eta beheko herritarren kasuan, autokonposta sustatzen ari gara, alegia, norberak kudeatzea hondakin organikoa konposta eginez. Lehen bilera bat egin genuen eta 40 konpostagailua banatu genituen. Udalak doan ematen du konpostagailua eta jarraipena egiten du lehen hilabeteetan, jendeak martxa hartu arte. Orain beste deialdi bat egin dugu, nahi duenak izena emateko".

Elbarrenan aztergai

Udalak ez du baztertzen Elbarrenan ere auzokonposta gune bat jartzea. "Aztertzen ari gara, kontuan hartu behar da berdegunea behar dela inguruan, baina herritarren eskaera izan ditugu eta ahalegina egingo dugu". Konposta egiten duenak hobaria izango du zergetan, azken finean, hondakin organikoa norberak tratatuta, garraioan eta tratamentuan aurrezten du Udalak.

eta orain arte ikusitakoarekin, alternatiba onena atez atekoa dela argi zegoen.

A.S.: Nabarmendu nahiko nuke, atez ateko bilketa ez dela gauza finko bat. Aldatzen eta hobetzen joateko pentsatua dago. Aukera asko ematen ditu. Eta gu horretarako prest gaude, hobekuntzak sartzeko. Beste erabaki batzuk aldaezinak dira, AHT-rena bezala.

EAJk salatu du Zizurkil goian ez dela atez atekoa jarriko..

A.S.: Nahita, dena nahastu nahian dabilta. Zizurkilek, beste hainbat herri bezala, bi errealitate ditu. Ez da berdin

baserri sakabanatuez osatua dagoen gune bat eta auzo jendetsu bat. Zizurkil Goian, Orendainen abian jarritako zero zabor eredua ezarriko dugu, Adunan ere ezarriko dena. Alegia, autokonpostaia eta auzokonpostaia bultzatuko da organikoa tratatzeko. Dagoeneko auzokonposta gune bat jarri dugu, beste bat ere jarriko da eta bilerak egiten ari gara etxeko konpostagailuak banatuz. Gainontzekoa gaika biltzeko berriz, gune itxiak jarriko dira, bi gune ziurrenik. Elbarrenan ere sakabanatutako etxeekin antzekoa egingo da.



«Atez ate aldatzen eta hobetzen joateko pentsatua dago, beste erabaki batzuk aldaezinak dira, AHTarena bezala»

Beste argudioa, ekonomikoa da. Ez dela bideragarria eta tasak igoko direla...

A.S.: Hori gezurra dela frogatua dago. Ekonomikoki bideragarria da, eta abantaila ekonomiko dezente ditu. Hasteko, lanpostu berriak sortuko dira. Bilketa garestigoa da bai, baina tratamendua, birziklatze tasa handiak direnez, merkeagoa da. Oraingo sistemarekin alderantzizkoa gertatzen da. Dena batera botatzen dugunez, tratamendua askoz garestiagoa da. Eta lasai, aurtun zaborraren tasa KPlaren baitan igo da. Datozen urteetan ere, igotzekotan horren arabera igoko da, eta agian ez da igo beharrik izango.

Inbertsio bat egin beharko da, ordea.

A.S.: Ezarpenean 50.000 euro gastatuko ditugula aurreikusi dugu. Beharrezko azpiegitura egin, larrialdi guneak eta konpostaguneak jarri... Kontuan izan behar da ordea, foru Aldundiak ematen dituela birziklapena bultzatzen duten proiektuentzako. Eta birziklatutakoagatik, Udalak dirua jasoko duela ikusita, epe ez oso luzean errentagarri aterako den inbertsioa da arlo ekonomikoan ere. Ingurumenean lehen egunetik izango da errentagarria.

Herritarrei mezu bat....

A.S.: Mezua da, lasai hartzeko. Hasiera guztiek ematen dutela beldurra, baina segituan ohituko garela. Eta arazoren bat duenarentzat, hemen egongo garela, informazio bulegoa ireki dugu eta telefonoz zalantzak argitzeko modua izango da.

J.M.L.: Herritarrentzako badakigu esfortzu bat dela, baina uste dugu denontzako eta batez ere ingurumenarentzat hoberena izango dela.

Atez atekoaren ezaugarriak

Herritarren proposamenen zain, Udalaren lehen asmoak azaldu dizkigu ingurumen zinegotziak. Hainbeste zeresan ematen duten zintzilikarioen gaia argitu digu lehenik. "Poste gisako zintzilikarioak ez dira ohikoenak izango Zizurkilen. Hainbat gunetan portal ondoan ontzia uztea nahikoa izango da. Beste batzuetan paretan jarriko da zintzilkatzeko aukera eta dentsitate handiko guneetan, hor bai, totem modukoak proposatu ditugu". Hainbat etxek berriz, jada prestatua dute hondakin nentzako gunea. "Pagamuño, Azken Portu eta Joxe Arregi plazako etxebizitza berriek badaramate hondakinak biltzeko gela egokitu bat, eta beraz ontziak bertara jaistea nahikoa izango dute. Hemendik aurrera etxebizitza berriak egiterakoan, arauak jarri ditugu lokal horiek izan ditzaten, legeak zehazten dituen ezaugarriekin".

Ontziak eta guneak

"Hondakin guztiak ontzietan biltzea proposatu dugu eta bileretan ondo ikusi dute, zabor poltsak atera ordez. Errazagoa eta txukunagoa dela uste dugu. Udalak banatuko dizkie ontzi horiek herritarrei". Horretaz gain, larrialdi gune deituak egongo dira, une jakin batean hondakin kopuru handia dugulako edo edozein arrazoi medio ateratzeko beharra izanez gero. "Bi gune jarriko ditugu Elbarrenan. Behar duenak Udala bulegoetara gerturatu eta giltza-txartela eskatu ahal izango du gune horietan hondakinak uzteko. Gero giltza itzuli eta listo." Argitu beharrekoa da saltoki eta sortzaile handiekin aparteko lanketa egiten ari direla. "Euren beharrak zehazteko eskatu diegu eta horren arabera erantzuna emango diegu, beti ere gaika banatu eta birziklatu beharko dutela argi utzita".

Ordutegiei dagokionez, bilketa gauean egitea aurrikusten



Zizurkil goian martxan da dagoeneko auzokonposta gune bat.

dute. "Hondakinak aterateko aukera 20:00etatik 22:00etara jarri nahi dugu baina argi esan nahi dut, ordubete lehenago edo geroxeago atera beharra izanez gero ez da ezer pasako". Sistema martxan noizko izango den oraindik ezin du zehaztu Sarasuak, "dena ez dago gure esku, mankomunitatea eta beste 4 herri daude asmo berberekin".

Informazio bulegoa

Zalantzak argitzeko, informazio bulegoa ireki da Atxulondo Kultur Etxean. Spora enpresa kataluniarreko Joana egongo da bertan herritarren zalantzak argitzeko astearte, asteazken ostegun eta ostiralean arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara. Zizurkil@tolosaldea.org helbidean eta 661.559.736 telefonoan ere argitu litezke zalantzak.

Las características del puerta a puerta

A la espera de que los vecinos y vecinas se pronuncien en torno a las características concretas del sistema puerta a puerta que se implantará en Zizurkil, los responsables municipales afirman que su proyecto no es instalar colga-

dores de cubos en todos los barrios.

Se planea, asimismo, recoger todas las fracciones de residuos en los cubos que repartirá el Ayuntamiento, al considerar que será más fácil y limpio. Además, pro-

yectan instalar dos puntos de emergencia en los que los vecinos y las vecinas podrán depositar sus residuos en momentos puntuales. Se tratará paralelamente con los comercios para elaborar un plan que responda a sus necesidades.

Para responder a las dudas que pudieran surgir se

ha habilitado un punto de información en la casa de cultura Atxulondo. El horario de atención al público es de martes a viernes de 15.00 a 19.00. Además, se ha dispuesto de una dirección de email, Zizurkil@tolosaldea.org y un número de teléfono, 661.559.736, en el que los vecinos y vecinas podrán informarse.

ALBISTEA

I. Pello Mari Otaño bertso paper lehiaketa



14

Zizurkilek bere herritar kutunarekiko duen zorra kitatzeko bidean, bertsolari handiaren izena daraman bertso paper lehiaketa antolatu da. Errekaldekoaren bizitza eta obra gaur egunera ekartzeko lanean ari den Hernandorena Kultur Elkarteara izan da ekimena.

Lehiaketak hiru maila ditu: Lehenengoa, gazteen maila, 18 urte artekoentzat (1995a baino geroago jaiotakoak). Bigarrenkoa, diasporako maila, Euskal Herrikan kanpo bizi diren euskaldunentzat eta

bereziki argentinarrentzat. Eta hirugarrena, helduen maila, 1995aren aurretik jaiotakoentzat.


Hiru mailatan, parte hartzaileek nahi adina bertso paper aurkeztu ditzakete. Gazteen eta diasporako mailetan, bertso paper bakoitzeko aurkeztu beharreko bertsoak gutxienez 6 izango dira eta gehienez 10. Helduen mailan berriz, 8koa izango da gutxienez bertso kopurua eta 12koa gehienezkoa. Gaia, neurria eta doinua libreki dira maila guztietan. Bertsoek jatorrizkoak eta ar-

gitaratu gabeak izan behar dute.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 10ean amaituko da. E-postaz (pedromariotano@zizurkil.net helbidean) edota posta arruntez (Iriarte Etxea, Pedro Mari Otaño Plaza 1, 20159 Zizurkil helbidean) bidali ahalko dira lanak. Bertso paperak aurkezteko modua www.zizurkil.eu web gunean zehazten da, baita lehiaketako beste nondik norako guztiak ere.

Animatu eta parte hartu!

Antzerki astea, apirilaren 22tik 28ra



Aurtengo antzerki asteak berrikuntzak dakartza. Bate-tik, Zizurkil Goian egin ohi den kale antzerkiaren ordeztu, Iriarte Etxean eskainiko da neurri txiki-ko antzezlan bat hilaren 26an; Edurne Agirrezabalaren "Sarean Zintzilikatuta" zehazki. Baina kaletik aretorako bidez ez ezik, aretotik tabernarakoa

ere egingo du antzerkiak. Izan ere, bakarrizketa afaria egingo da Atxulondo tabernan hilaren 27an. Aurreko edizioetatik aldatuko ez dena, hurrei bideratutako eskaintza zabala da. 2-6 adin tarteko haurrek "Musika Tresnen Fabrika" eza-gutuko dute apirilaren 22an, eta biharamunean, 7 urtetik

12 urte bitartekoek "Jolas eta zilarrezko txartela" kontsumo arduratsuari buruzko antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute. Azkenik, Pedro Mari Otaño ikasleen antzezlan ere ez da faltako. Hilaren 25ean eskainiko dute aurreko bi obrak bezalaxe Atxulondo Kultur Etxean.

La semana del teatro, del 23 al 28 de abril

La semana del teatro viene esta vez con novedades: Por un lado, en Zizurkil Goia se va a ofrecer la obra "Sarean Zintzilikatuta" en la casa Iriarte el día 26 de abril. Por otra parte, en el Restaura-

te Atxulondo se celebrará una cena de monólogos el día 27. Los niños y niñas también tendrán la oportunidad de disfrutar del teatro mediante dos obras: una dirigida para los pequeños

entre 2 y 6 años, y otra para los que tienen 7 y 12 años. Finalmente, los alumnos de la escuela Pedro Mari Otaño también ofrecerán la obra que han estado preparando estos meses.

Pintxo-pote, Zizurkilen!

Hilabete bada Zizurkilgo 5 tabernetan beste hainbat herritan zabaldua dagoen pintxo-potea egiten hasi zirela.

Hasieran arrotza zen pintxo-pote hitza bera ere. Pixkanaka ordea, herriz herri zabaltzen doan aukera da. Eta gure herrira ere iritsi da. Asteazkenetan da hitzordua Zizurkilen, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Edariaren truke pintxo bat dastatzeko aukera. Hori da pintxo-potearen funtsa. Karlos Zabala, Atxulondo jatetxe-koak eman dizkigu azalpenak, "5 taberna gaude pintxo pote



eskaintzen dugunak, Joxe Arregi plazaren bueltako herrirak, alegia, Pasus, Egarrri eta Atxulondo, eta Aurrera plaza-ko Txindoki eta Muxkil".

Pixkanaka zabaltzen

Gauza hauetan ohikoa denez, pixkanaka hasi da pintxo-potearen kontua zabaltzen. "Sumatzen dugu aurreneko asteetan baino erantzun hobeia izaten ari dela ondorengoetan". Erabakia zergatik hartu zuten galdetuta, argi du erantzuna Zabalak. "Asteetan zehar bestela iluntzeko

19:00etatik aurrera oso mugimendu gutxi izaten da. Ikusirik beste leku batzuetan funtzionatzen zuela, eta herriari bizi pixka bat emateko asmoz, animatu egin ginen". Arestian esan bezala, edaria soilik ko-bratzen da eta pintxo doan ematen da. "Normalean bi pintxo izaten dira aukeran, bezeroak berak gustokoa har dezan".

Badakizue beraz, asteazkenetan Zizurkilen ere baduzue aukera pintxo-potearen aitzakian iluntze ederra pasatzeko.

Pintxo pote, ¡En Zizurkil!

Desde hace un mes, 5 bares de Zizurkil empezaron a ofrecer un día de pintxo pote. Una oferta que ha sido exitosa en otros municipios. En Zizurkil, han elegido los miércoles, desde la 19:00 a las 21:00 horas. "Los bares que ofertamos pintxo pote somos los 3 de

la plaza Joxe Arregi, es decir, Pasus, Egarrri y Atxulondo, y los dos de la plaza Aurrera, Muxkil y Txindoki", nos explica Karlos Zabala, del restaurante Atxulondo.

Cada vez más popular

Como es habitual en estas

iniciativas, "se nota que la respuesta de la gente va mejorando de semana a semana. "Entre semana, a partir de las 19:00 horas, suele haber poco movimiento. Al ver que en otros lugares funciona esta iniciativa, y con el objetivo de dar un poco de

vida al municipio, nos animamos". La base del pintxo pote es sencilla. "Se paga la bebida y a cambio se da la opción de consumir un pintxo gratis. Habitualmente, preparamos dos pintxos diferentes para que sea el cliente quien decida".

XX. Txapel Eguna

1994an hasi ziren Zizurkilen Txapel Eguna egiten. Helburu bikoitza zuen egunak: Herri giroan parte hartzen zuen herritar bat omentzea eta euskaldunen tradiziozkoa zen jantzia berreskuratzea. Lehen egun hartatik gaur arte bide luzea egin du Txapel Eguna, herritar ugari omen-

du dira geroztik, gizonak bezala emakumeak.

XX. urteurrena zela eta, lehen urte hartan antolatzaile izan zirenak omendu dira aurtengoan. Talde haren ordezkari, Xabier Oiartzabal "Apaiza" eta Iñaxio Fernandezek jaso zuten txapela, giro ederrean ospatu zen afarian.



15



MARIA ALTUNA

“Artea askatu behar dugu”

Beste ikuspuntu bat, ikuspuntu kritikoa

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

Arte ederrak amaitu eta ikerketa masterra egin zuen Maria Altunak. Horren harira, proiektu gisa Zizurkil-darron memorian dauden lekuak ikertzen aritu da. Ondoriak jaso eta “Memoria-ekintza-aztarna”erakusketa jarri zuen Atxulondo Kultur Etxean. Bertan egin dugu hitzordua, Aiztondo Klasikan laguntzeko aitzakiarekin bizileku duen Bilbotik Zizurkilera egindako eskapada baliatuta.

Nor da eta zer da Maria Altuna? Artista?

Iturgintza ikasten duena iturgina da, baina nik denetik egiten dut. Ofizioz ez dakit zer naizen. Artista bizitzeko moduarekin lotzen dut nik. Gainera, nork esaten du zu artista zara eta zu ez?

Denetik egiten duzula esan duzu, eta bai, ez zara geldirik egotekoa!

Ezin da mezenas bat etorriko zaizun esperantzan zain egon. Besteak beste, “Kurba” kolektiboa sortu genuen eta “Zirkunferen-

tzia kurba itxi bat da” erakusketa jarri genuen Baionako galeria asoziatiboan. Erakusketa bera Uztaritzen dago orain. Oinetakoak ere egiten ditugu. Gaur bertan egon naiz Eibarren horiek saltzen.

Esaten da zaila dela erakusketak lortzea....

Ez da zaila. Non erakutsi nahi duzun da kontua. Granadan aparkaleku batean egin genuen erakusketa. OTako tiketa hartu eta bertan jarri genituen gure lanak erakusgai. Jende piloa pasatu zen.

Artea kalera atera behar da beraz?

Bai. Jende askok pintatzen du, baina lanak ez ditu mugitzen eta horrela jendeak ezin du lan horiekin disfrutatu. Egoera horri irtenbidea emateko modua da kalea.

Gustura geratu zinen Memoria-aztarna-ekintza erakusketak izan zuen erantzunarekin?

Bai. Jende asko pasa

zen. Nolabait fase bat ixteko balio izan zuen. Era berean, Zizurkil denbora pixka bat pasatzeko aitzakia bikaina izan zen. Izan ere, Bilbon egoten naiz, baina Zizurkilgo irudiekin eta lekuekin aritzen naiz lanean. Nere burua berkokatzeko ondo etorri zait, eta bide batez, Bilbon bizi arren oraindik zizurkil-darra naizela esateko ere bai.

Zure ikerketari esker inork baino hobeto ezagutzen dituzu zizurkildarren memorian dauden lekuak. Zeintzuk dira errepikatue-nak?

Zarateko Benta, Zubimusu, Fraisoro, zimiterioa, tren geltokia... Leku asko errepikatu dira. Dena den, lagin handiago bat hartu beharko litzateke ziurtasunez erantzuteko.

Eta arteak zer leku dauka Zizurkil-en?

Behar baino gutxiago. Haurrentzako eskaintza falta da agian. Izan ere, egun-

go eskolak ez du arterako grina sortzen.

Zer egin beharko genuke orduan?

Iruditzen zait artea askatu egin behar dugula. Oso instituzionalizatuta dago. Tabernak, kaleak.. artea egiteko leku onak dira. Ondo legoke adibidez, kalean pintatzeko hitzordua bat deitzea.

Esaiguzu...

Zizurkilgo pertsonaia bat?

Nire bizilaguna, Marina andereñoa. Askotan jaisten nintzen bere etxera.

Leku bat?

Teodosio eraikineko izkina gustatzen zait, eta bere balkoia. Trenean iristen naizenean beti geratzen naiz begira.

Zizurkilek zer du faltan?

Autokritika. Zain egon beharrean egitea falta zaio. Sortzea.

Eta soberan?

Plazan egin diren etxeak.